

ATXA LEHENGUSUAK

San Toledo izeneko herri bateko mendi tontor batean, Atxa lehengusuak bizi ziren. Bertan Zillars eta Billars anaiak, Kokotx lehengusua bizi ziren, eta beste senideak. Atxa lehengusuak herrian herriko ume formalenak bezala ezagutuak ziren, egunero jaisten ziren mendi tontorretik oinezean eskolara bidean pentsatzen zituzten beraien ideia zoragarriak, Kokotx zen hiruretako buruzagia, baina Billarsekin adosten zituen pentsatutako gauza guztiak, Zillars txikiena zenez ez zioten kasu handirik egiten baina beti prest egoten zen. Ikastolara heltzean Xatras egoten zen, Xatras Irlandatik etorritako ume bat zen, aitak bertan zituen sorretatik ihes eginda. Xatras lehengusuekin batera aritzen zen, eta iup hitza bakarrik esateko gai zen arren elkar oso ongi ulertzen ziren.

Asteartea zen eta beste egun bat bezala Atxa lehengusuak beraien planak pentsatzen zihoazen.

—Aizue, eta gaur elizara sartzen bagara itxita dagoenean? —zioen Kokotx-ek

—Bua, bai bai, —erantzun zuen Billars-ek

Zillars-ek ez zuen ezer esan oso nekatuta zegoen eta. Eskolara bidean beste biak planari buruz hitzegiten zeuden. Bertan Xatراسi kontatu zioten plana eta Xatrasek nahiz eta iup hitza bakarrik esan prest zagoela ulertarazi zien. Ordu luzeak igaro ziren, baina azkenean heldu zen ordua elizara abiatu ziren, bertan Zillarsi bere lanik onena egiteko eskatu zioten, hau da zegoen lehi txikitik sartzeari bertara. Zillarsek bederatzi urte zituen baina neska txiki txiki bat zen eta berak lehengusuen gaiztakerietan asko laguntzen zuen. Zillars barrura sartu zen eta ziztu bizian zabaldu zien atea. Barruan sakristiara abiatu ziren esploratzera, Kokotx-ek apaizaren tunika jantzi zuen eta bitartean Xatراس isil-isilik nola ez, zerbait bilatzen zegoen. Bapatean ieup bat entzun zen, eta han zegoen Xatراس apaizaren ardoarekin, Billarsek kaliza artu zuen eta konturatu gabe laurak, zegoen ardo dena edan zuten. Konturatu ordurako ia zazpirak ziren eta lehengusuak ziztu bizian etxera joan ziren. Ardoaren ondorioz etxera heltzea kostatu egin zitzairen eta etxean amona Txakolinak kristonetako sarmoa bota zien.

Honetan Osteguna zen eta lehengusuak eta Xatراس herriko plazan jolasten ari ziren, Billars herriko ostatura joan zen eta komunetik bueltan han ikusi zituen herriko gizonak musean jolasten. Billarsek musean jolastea gustuko zuen baina ez zen herriko gizonak baino hobe, baina azkarragoa bai. Billars-ek besteei bere plana kontatu zien, bere plana herriko gizonei tranpa bidez irabaztea zen, eta apostatu egiten zutenez berak irabaziko zuen dirua. Billars ume bat zenez pare bat txanponekin nahiko izango zuen. Denei ideia ona pentsatu zitzairen eta Ostatura joan ziren, gizonak baietz esan zien, ume moko batzuk zirenez ez zitzairen axola gizonei, beraiek irabaziko zutela pentsatzen zuten eta. Partidaren zehar Billars-ek karta batzuk Zillars-ei ematen zizkion,

azkenean laukoteak irabazi zuten botea, eta herriko gizonak txundituta zeuden. Botea eraman zuten baina karta sorta ederra baita.

—Eta orain zer egingo dugu diruarekin? —esan zuen Billars-ek

—Ba goxokiak erosi,mesedez, —erantzun zuen Zillars-ek

—Ez ez tirattinas bat,herriko mozoloei harrikada txikiak emateko behingoz? —zion

Kokotx-ek

—leup! nola ez, —zion Xatrasek

—Hori da primiko, —esan zuen Billars-ek

Gaurkoan asteartea zen eta eskolatik txango bat zuten ondoko herriko igeri lekura,autobusean abesten eta normalean baino lasaiago zihoazen, Xatras lo zihoan eta besteak abesten. Igerilekura iritsi ziren eta denak aldageletan zeuden, bainujantzia jansten, txapela jasten, betaurrekoak, eta uretara abiatu ziren. Igerian zeuden denak, ur azpian isil isilik, baina Billarsek burua beste zerbaiten zuen, plan bat pentsatzen zegoen. Plan hori irakaslerai arropa guztia ezkutatzeara zen, baina lehenengo ondo burutu behar zuen. Lehenik eta behin beste hiruren laguntza beharko zuen eta uretatik kanpo zeudenean kontatu zien.

— Aizue eta Toniri arropa ezkutatzeko badiogu? — zion Billars-ek

— Bua ze ideia earra tu — erantzun zuen Kokotxek

— leup! — erantzun zuen Xatras-ek

— Bai, baina nola egingo dugu? — galdetu zuen Zillarsek

— Ba nik uste Toni dutxan dagoenean dela momentu aproposena — erantzun zion

Billars-ek

— Bai baina ez dugu denbora asko izango, ez du ile asko garbitzeko eta... — esan zuen

Kokotx-ek

— Bueno ba ados gero egingo dugu aldageletan- zion Zillars-ek

— leup! — nola ez esan zuen Xatras-ek.

Denak uretatik atera ziren eta aldageletara abiatu ziren, laukotea isil isilik,denak dutxan zeuden eta ziztu bizian Toni zegoen aldagelara sartu ziren, bertatik bere arropa artu eta ez zutena pentsatuta da non gorede. Billarsek arropa artu eta igerilekuko filtrotra sartu zuen, baina Toni oraindik ipurdia zuen bakarrik garbi, laurak dutxatzera joan ziren eta isil isilik dutxatu ziren.Toni dutxatik atera zen krema eman eta topatu zuen bakarra zapatillak ziren, Toni gizon on bat, eta ez oso argia zenez ez zuen pentsatu bere ikasleak izan zirela orduan resepziora joan zen. Respzioan irtenbide bakarra eman zioten bertan ahztutako arroparekin jastea, eta toaila baino hobea zenez ala itzuli zen Toni. Eta ikasleak barreska igaro zuten autobus ibilaldi osoa, baina bastes ere Atxa lehengusuak eta Xatras-ek.

Beste hontan Ostirala zen eta betiko bezala zerbaitetan pentsatzen ari ziren Atxa lehengusuak eta Xatras. Oingoan Xatrasen ideia izan zen, eta nola zen ura posible? Xatras-ek ez zuen iup baino ezer gehiago esaten eta, Xatras-ek bi behatz ahora eraman zituen, eta irakaslea egiten zegoena ikusis, hau da erretzen, beste hirurak ziztu bizian asmatu zuten zer esan nahi zuen. Klase ondoren errekreoa zetorren eta bertan irakasle Eskot-eri nola lapurtuko zioten zigarroak hasi ziren pentsatzen.

—Nik uste zigarroak lortzeko ideia azkar eta seguruena bazkaloruan dela, —zion Kokotx-ek

—Ez ez orain, —esan zuen Billars-ek

—Eskerrak beti badaezpada amona Txakolinak ahuntzak lokartzeko erabiltzen dituen somniferoa daramatela gainean, —erantzun zuen Zillars-ek

—leup! zion —beti bezala Xatrasek

—Hori da Zillars tu eman bat eta kafean sartuko diot orain, —erantzun zion Kokotxek

Irakasleak kafea hartu zuen eta pare bat minutu geroago seko gelditu zen bere ahulkian. Momentu horretan aprobetxatu zuten zigarroak lapurtzeko, zigarro gabe utzi zuten Eskot eta errekreora bueltatu ziren. Errekreaa amaitzean ikasle guztiak gelan zeudela denak ohartu ziren irakaslea ez zela jaikitzen, orduan Xatras eta Lehengusuak bertatik jospa egin zuten. Ikastolatik goiko larre batera joan ziren, bertan kajetilla osoa erre zuten.

Xatras eta lehengusuak horrela jarraitu zuten, elkarrekin, elkar zainduz eta nola ez formal formal.